

Xabier Etxaniz Erle

IDAZLEA

Barkamena eta damua

Barne ministro jaunak argi eta garbi esan du, barkamena eskatu behar da egindako kalteengatik eta damua erakutsi. Badakit, jokabide hori oso kristaua dela, aurreko

Defensor del Pueblo delakoak oso garbi du barkamenak ez duela zentzurik, berak inoiz ez duela barkatuko (ikuspegi judutarrari dagokion bezala). Baina, orain esaten didate egindakoaz damutu egin behar naizela eta, gainera, barkamena eskatu behar dudala. Ni, aldiz, harro nago egindako guztiaz. Ziur aski zenbait kontu beste modu batean egingo nituen/genituen; agian odol isurketarik gabe, edo gutxiagorekin; beharbada komunikabideen eragin txikiagoa neurtuz; baina gure ustez zuzen aritu ginen; egoerak, beharrek, gure aberriak hori dena eta gehiago egitera behartuta ere gustura onartu genituen zailtasunak. Urte zail eta latz haietan erabaki sendoak eta, era berean, bortitzak hartu behar ziren.

Orain, demokrazian omen gauden egoera honetan, ziur aski beste modu batean jokatu nukeen; helburu berberak lortzeko bestelako bideak bilatzen saiatuko nintzatekeen, ez haiekin ados ez nagoelako, oraingo gizarteak hala eskatzen duelako baizik.

Barkamena eta damua eskatzen zaizkit beraz, baina ni ez nago prest. Aitzitik, harro



ALEX LARRETXI



Ni joan berria naiz,
damurik eta barkamen
eskaerarik egin gabe.

Nik arrazoia nuelako,
nik hori dena
aberriagatik
egin nuelako



nagoela esan dut eta urte haietako sakrifizioa guztiz beharrezkoa izan dela uste dut. Orain gauden egoeran egoteko, orain gauden bezala, gizarte honetan bizi ahal izateko, urte haietako borrokak, heriotzak, beharrezkoak izan dira. Beraz, ministro jauna, jai duzu nigandik damu zantzu txikiena ere espero baldin baduzu. Heriotza haiek, sufrimendu guztia, gizarte esparru batzuetan zabalduko beldurra eta ikara, horiek denak eta gehiago behar-beharrezkoak izan ziren. Bai, bestela komunistek, separatistek hartuko zuten boterea. Gure gizarte baketsua zalantzan jarriko zuten. Nola ausartzen ziren lan baldintza hobek eskatzen, lana eskaintzen genienean? Nola eska zezaketen beren ideiak adieraztea?

Ni joan berria naiz, damurik eta barkamen eskaerarik egin gabe. Nik arrazoia nuelako, nik hori dena aberriagatik egin nuelako. Ez al dituzue ikusi errege familiarik eta gobernuko kideak nire hiletetan?

Eta, amaitzeko, ez dezatela martxoaren 3koen familiarrek, egun haietan jipoitutakoek, kolpatutakoek, atxilotutakoek... historia berriatzi nahi. Horixe bakarrik falta zen! Historia bakarra da eta nik, On Manuelek, Galiziako hilobi honetatik idatzia. ■



TXANDAN

Edu Zelajeta



Hiru urte eta erdi joan dira aita naizenetik eta askoz gehiagotan mintzatu izan naiz gurasotasunaz emakumeekin gizonekin baino. Era berean, askoz emakume gehiago mintzatu izan dira aitatasunaz nirekin gizonak baino. Azkenaldiko lege zenbait gorabehera, denbora luzean nagusi eta gailen izan den rolen banaketa sexistak indarrean dirau gure artean. Gure barrenean.

Aitatasunaren gaineko kezka edota jakin-mina agertzeak —orain txoko honetan ari naizen bezala, bide batez— sexuen araberako banaketa garbia ekarri

Ai, aita!

didala ohartua naiz, bai eta euskarazko gure mundutxo honetan ere: esku batean aise sartuko lirakeen salbuespenak salbuespen, emakume sortzaileek bakarrik aipatu didate zerbait nik plazaratutako galderez nahiz noraezaz; gizonengandik, aitzitik, ez dut *feedback*-ik lortu.

Nire irudiko, gizonok aitatasunaz jarduteko interesa askoz txikiagoa izatea esanguratsua da oso: 40 urte-tik beherako aiten artean erraz nabari da aita izatearen funtzioa bigarren mailako hizpidea dela. Tamalez, aitatasuna ez da belaunaldi berriko aitok mugitzen gaituen afera. Oraindik ez, bederen. ■

